

AI  
ZAPOTXIN!

# BARATXURI ZOPAREN SEKRETUA





# AI, ZAPOTXIN!

## BARATXURI ZOPAREN SEKRETUA

Zapotxinek urduri daramatza azken egunok, izan ere, "Mariplanplona" sorgina ezagutuko duela dio etengabe. Gaurkoan ezagutuko du Maripanpalona, gure herriko sorgin trebe eta lagun ona! Ez dute ordea edabe magikorik egingo, ezta erratz gainean hegan egingo... ezta zapoekin zapohizketan egingo. Maripanpalonak Zapotxinen bihotza sorginduko du, ordea.

Aurten Zapotxinen bidaiarekin sorginen gainean dugun iruditegia berreraikitzea dugu helburu. Baratxuri zopa lapiko bete baten bueltan arituko da protagonista eta zenbait herritar ezagutuko ditu. Maripanpalona, sorgin trebe eta lagun ona; Kroketa koketa, sukaldari ospetsu eta baserritarra; Xerafino Bonbardino, orkestra zuzendari eta rockanrolero itsua eta Amona Badalona, Kataluinatik etorritako amona maitagarria, goizero euskaltegira bisita egiten duena. Guztien laguntzaz, Zapotxinek ezagutuko du, sorgin izatea ez dela betiko ipuinek kontatzen dutena eta gure herrian badirela zenbait: amona, ama, alaba... eta gu haien eskutik helduta, sorginak izatera goaz!

### ANTZERKI MUSIKALA

Ordu eta laurden, euskaraz

### ADIN TARTEA

Familia-ikuskizuna  
(2-8 urtekoentzat gomendatua)

### AKTOREAK

Zapotxin - Markel Oiarzabal  
Libe Yeregui

### TEKNIKARIA

Aitor Castillo

### EKOIZPEN LAGUNTZAILEAK

Boni Oiarzabal  
Mirari Aldazabal

### BULEGOA

Manex Torrealdei

### MUSIKA

Markel Oiarzabal, Xabi Arratibel,  
Peio Oiarzabal, Imanol Kamio eta  
Oier Güemes.

### HITZAK

Iker Ormazabal "Tturko"

### JANTZIAK

M. Angeles Oiarzabal

### ILUSTRAZIOAK

Ane Loinaz

# ZAPOTXIN ETA LAGUNAK



# ANTZERKIA





ZAPOTXIN gure herrian, nolabait bere herrian ikustea, alaia, pozgarria, frexkoa, ilusioz betea eta zirrargarria izan da. Bere eszenografia istorioarekin oso ongi pentsatua du, talde oso polita lagun. Nahiz eta badirudien bakar bakarrik ariko dela, airean (off-ean) duen ahotsak eta soinu efektuek bidaiari laguntzen diote. Baina berak bakar bakarrik erraz betetzen du plaza. Gure herriko historia/istorioen eta pertsonaien transmisioan jartzen du begia, nondik gatozen jakitearen garrantzia bere sudur gorria... Bide oparoa opa diogu gure herriko plazatik Euskal Herriko plaza guztietara...

**ARANOKO JAI BATZORDEA**

Euskaratik eta euskarara gerturatzeko gaituen emanaldi bikaina! Emanaldiaren gaia oso aberatsa eta ondo landua. Hunkigarria bezain dibertigarria. Gora Zapotxin!

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**



# MILA ESKERI!

(+34) 722 419 362

[kaixo@zapotxin.eus](mailto:kaixo@zapotxin.eus)

